

BE ARTSUEN DEADA RRA

Aurtengo Garizuman, Euzkadiko Obispuak garrantziko Idazki bi argitaratu dabez. Bata beartsuei buruz ta bestea askatasunaren aide. Bietatik, zaratatsuena dudarik gabe, bigarrena izan da. An ta emen sortu ditu bere eztabaidak ta istilluak.

Naiz ta ainbeste burrundada atera ez, beartsuen Idazkia mamin-tsuagoa da. Bearrezkoa dala, uste dot, Karmelen bertako idea batzuk azpimarkatzea.

Ebanjelioa heartsuentzat

Beartsuentzat egina da Jainkoaren Errenua. Orixe da Jesusen jorkabide guztia. Beartsuei barri ona emotera etorria dogu mundura. Idazkiak dinoanez: «Jainkoaren Errenua ondasun-gabeena da, bearrak markatzen dituen gizon eta emakumeena. Or sartzen dira premiadunak, aundizkiak zapalduak, indart-su eta bortxatzaileen geiegikerien aurrean beren euskubideak aldezteko gai ez direnak, izen onik eta baliabiderik gabeko gizon-emakumeak, inork zuzentasuna egiten ez dien jendeak, egitura sozialetan eta giza biotzetan lekurik ez duten pertsonak».

Au egia danez, berez edonori barrutik urteten jakoz onelako gal-

dera sakonak: Errenua zergaitik da beartsuentzat bakarrik barri ona? Jaungoikoa ez al da batzuentzat bezala besteentzat be Jaungoiko? Zergaitik beartsuak Jesusengandik tratu berezia?

Gure Obispuentzat probretasuna, berez ez dau ifior besteak bano obeago egiten. Beartsuenganako apartekotasuna ez da eurak meritu andiagoak dabezalako, edo birtute geiago daukelako, ezta Jesusen Ebanjelioa onartzeko gaitasun obeago dabelako be.

Obispuentzat «arrazoi bakarra zera da: beartsuak eta bazterutziak direla, eta Jainkoa, guztion Aita izanik, ez daitekeela nagusi izan gizonen artean, inork zuzentasuna egiten ez dienei zuzentasuna eginez ez bada (...) Jainkoaren Erreinua datorrenean zorionekoak izango dira beartsuak. Ez aberatsak baiio obeak direlako, baizik-eta erreinu berrian Jainkoa ezin daitekeelako nagusi izan, beartsuei zuzentasun eginez ez bada».

AberatseS saSaketa

Une askotan demagogu usaina dariola, dirudi Idazki-pastorala. Berba gogorak ditu aberatsekin: «Aberatsei eta indartsuei dei egiten zaie, beren ondasunak senide beartsuen artean bana ditzaten»; «pobreak eta beartsuak ditugun arte, Jesusek aberastasun guztiak kondenatzen ditu»; «aberastasunak gogortu egiten ditu gizon-emakumeak, entzungor egiten besteren bearretara»; «aberastasunak urrundu egiten dute, eta etena sortzen; klaseak finkatzen dituzte eta itxurak jartzen gizonen artean ».

Aberatsak pobrien lepotik bizi dira, baita erri aberatsak be erri pobrien lepotik. Teori au ez dau onartuko Harvardko Rostow soziologo jakintsuak, bai ostera sozialistak. Ta oneikin batera gure Obispuek dirloe: «Erri zapalduarik baldin bada, indartsuek bere indarrekin zapaltzen dutelako. Ain beartsu diren pobreak baldin badaude, aberatsek beren ondasunak banatzen ez dituztelako da».

Bana Euzkadiko Obispuek ez dabiltz gorrotoz aberatsen kontra. Danen gidari dira. Ez dabiltz bat salbetako bestea lurrera botetan. Ori bano biotz zabalagoa dauke, Jesusen eskolan ikasiak diranez. Itxaropenezko bide bat eskeintzen dausie aberatsei. Bide ori «beartsuekin alkarbanatzea dituen ondasunak»; «bearrezko ez zaigun ura beartezko zaien senideen artean banatzea» da.

Ebanjeliozko pobiretasona

Gizaldi bakotzak bere erara ulertzen dau Jesusen mezua. Alderdi ortatik begiratzen jako gaur pobretasunari. Ta ez dago beste biderik aberatsak salbetako. Gure obispuen asmo guztia, pobreak euren pobretasunetik askatzea eta aberatsak euren aberastasunetik askatzea izan da. Gure errian zuzentasuna ta bardintasuna nagusi izan daitezana.

Gauza bat da pobreak askatzea ta beste bat aberatsak askatzea. Ta jokabide ortan ez dago alderdi-gabeko biderik: «Kristauak ez du sinisten, —dinoe obispuek—, Jainkoa batzuentzat bezala denik besteentzat ere, eta nagusi izan daitekeenik gizonen artean, babesik ez dutenei egiten zaizkien zuzen-kontra guztietaz arduratu gabe».

Bide ontatik ibiliak dira ainbat santu ta gizon on. Ta euren artean Ama Birjina:

«Aindikiak aulkietatik jaurti, eta apalak jaso egin ebazan. Gose ziranak ondasunez bete, eta aberatsak esku-utsik bialdu».

A. OLEA

